

Bat. Hamalau aldizkaritatik bostek bakarrik diru-banaketa honen ia % 80 eramán du (% 78,4 hain zuzen), bost horietatik bi bereziak eta euskaraz gisa horretako (ia) bakarrik izanik, hurrei zuzenduak alegia. Irakurle larriarentzat pentsatutako beste aldizkari guztien artean, laguntza eta sari haundienenez merezigarri, aldearekin gainera, hiru hauetxek ikusi ditu Eusko Jaurlaritzak: *Argia*, *Saski-Naski* eta *Oh! Euzkadi*, begira taulan. Hau da, informazioko euskal astekari bakarra eta, gero, *Saski-Naski* sarituena, *Oh! Euzkadi* bigarren sarituena.

Bi. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirua hartzeko orduan, JAKIN, hamalau aldizkariren artean, hamaikagarren (11) lekuan agertzen da, atzetik dituen denak *Ikastola*, *Jaunen Deia* eta *Zer* aldizkariak direla.

Hiru. «Kriterio mekaniko hutsak» erabili omen dira diru-banaketan. Erizpide mekanikoak? Aplikazioa da mekanikoa, ez kriterioak!. ■ *Joan Altzibar*.

## Urteburu kulturalak

Espanian prestakizunak hasiak dituzte Juan Ramón Jiménez eta Picassoren jaiotzako ehunurteburuak ohorez ospatzeko. Euskal Herriak, apalkiago, Juan Jose Mogel, Artxu eta Iparagirre gogoratuko ditu.

Urteburu kultural asko tokatzen zaigu aurten. Mereziko du gogoangarrienak aipatzea, urte hasieran, beti sorpresaz harraipatzen gaituzte eta bestela.

J. R. Jimenez bezala, aurten 100 urte jaio zen Stefan Zweig Viennan. Eta Picasso bezala, duela 100 urte jaio zen Fernand Leger pintorea ere. Aurten ospatzen da Tilman Riemenschneider irudigilearen heriotzako 450. ehunurteburua. Musikoak: duela 100 urte jaio zen Bela Bartok eta duela 300 Telemann, mar txokoak biak. Jaiotzak eta heriotzak nahasian, ospatzeko dena on da eta. Duela 125 urte hil ziren Schumann eta H. Heine eta duela 125 urte jaio S. Freud eta B. Shaw. Aurten ospatzen dugu Dostojewskiren heriotzako lehen ehunurteburua ere.

Freuden oroiz sinposio bat antolatu du udazkenerako Vienako Unibertsitateak, hemengo prentsan ere izango duela oihartzuntzoren bat, espero nahi bait genuke. Dena dela, kongresu bat jadanik eskainia zaio, urte berriaren hasieran, duela 150 urte hildako Hegel filosofoari, hemengo prentsan oihartzun batere izan gabe. Eta horrek ere ezin esan gehiegi harritzen gaituenik. Ibsen aurten 75 urte hil zela eta, mundu guztian zehar teatroetan berriro *Nora* erakusten da. Suerte piska batekin, bakan-

tzetan igoal harrapatuko dugu nonbait. Bestela, eseri eta irakurtzera. Zein animatzen da euskaratzera?

Alde handia dago urteburutik urteburura. 25 urte besterik ez da Bert Brecht hil zela, oroituko da oraindik jendea, baina Virgilio, irailaren 21ean, orain 2000 urte jaiotako zen. «Arma virumque cano» haiek desfrizatu behar izaten genizkiona.

Aurtengo urteburu kulturalik inportanteena, halere, irakurle maite-maite hori, eskuetan dauzkazun paperotan, honako hauxe dugu: Jainkoaren graziatzko 1981. urte loriosoan da hogeitabost urte borobil JAKIN munduan jaiotako zela. ■ *Gabriel Noss.*

## Eliza eta euskara

Duela gutxi entzuten nion Gipuzkoako elizbarrutiaren berri ongi dakien apaiz bati: «Euskara GURE AITA eta horrelako gauza batzu kantatzeko ari zaigu geratzen». Alegia, batzuetan beste jota, funtsezko gauzak erdaraz egiten dira gure Elizan, kupidarik gabe.

Nire eritzia ere hauxe da, argi eta garbi. Herri txiki xamarrak alde batera utziz gero, euskara oso baztertuta dagoela iruditzen zait. Eta nahiago nuke mila bider okerrean banengo. Arazo larriarik baldin bada gure Elizan, hauxe da bat, dudarik gabe. Larria baino larriagoa, noski.

Apaiz berak esan zuen beste honelako zerbait ere: «Bizitzako galdera nagusiak euskaraz egin eta egosten dituztenak gero eta gutxiago dira gure artean». Bai, halaxe da tamalez. Baina nire kezka hau da: Ez al da Elizaren errua gauzak horrela gertatzen badira? Eta beste hau: Konturatzen al da Eliza zer dihoakion auzi honetan?

Horra hor arazoa, gordin asko planteaturik. Neure eritzia eman behar banu, hauxe esango nuke: ez dudala behar bezalako sentiberatasunik aurkitzen gure Elizan, auzi honi dagokionez. Eta sentiberatasunik ez dagoen tokian... jai dago.

Guzti honek argi erakusten duenez, gure Elizak ez du behar bezala planteatzen euskararen arazoa. Areago, gure Elizaren praxia, arlo honetan, likidazionista da, nolabait esateko. Bestela esan, martxa honetan, euskara gero eta bitxiago eta arrotzago bihurtuko zaigu geure Elizan.

Azken finean, hemen planteatzen den arazoa ez da euskararena bakarrik, fedeara eta ebanjelizazioarena baizik. Zera esan nahi da: Eliza batek herri baten hizkuntza horrela tratatzen duenean, zernola ulertzen du bere ebanjelizazio-lana? Ala ebanjelioak ez du zerikusirik arazo honekin?